

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

#### Nekazaritza Eremua

**Gasteizko menpeko toki-erakundeetako lorategiak mantentzeko eta Olarizuko lorategi botanikoko landare biziak zaintzeko zerbitzuak kudeatzeko INDESA 2010 SL-ri emandako mandatua luzatzea, 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra arte**

2018ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko menpeko toki-erakundeetako lorategiak mantentzeko eta Olarizuko lorategi botanikoko landare biziak zaintzeko zerbitzuak kudeatzeko mandatua luzatzea erabaki du, INDESA 2010 SL-rekin duen mandatua hain zuzen ere, 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra bitartean, 263.008,25 euroan, BEZik gabe, Gasteizko Udalaren 2018ko aurrekontuko 2018/01 82 17432 1911 ("Herrietako lorategiak onik zaintzea") partidaren kontura.

Herritar oro jakinaren gainean egon dadin ematen da argitara.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 2an

*Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria*  
**BLANCA GUINEA ASTOBIZA**